

**2013KO UZTAILAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko ekainaren 24ko eta uztailaren 15eko akten berri eman ondoren, onartu egin dira, beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN
USTIAPENA ETA ANTZOKI HORRETARAKO 3D / 2D SISTEMAREKIN
PROIEKZIO DIGITALERAKO EKIPAMENDUAREN HORNIDURA ETA
INSTALAZIOA KONTRATATZEA:**

Ezagutzera eman da 2013ko uztailaren 29ko Kontratazio Maiharen proposamena, hau da:

“Gobernu Batzordea, 2013ko ekainaren 24an deialdia publikoa egitea erabaki zuen aipatutako kontrataziorako, horretarako baldintza pleguak onartuz.

Deialdia, 2013-06-28ko GAOean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean, 2013-07-15ean hain zuzen ere, bakarrik HTK FILM, S.L., proposamena aurkeztu zen.

2013-07-16an, burofaxa jaso zen Correos-en 2013-07-15ean 14:25etan aurkeztutakoa.

Idazkariak emandako txostenaren arabera, burofaxa Udaletxean 2013-07-15ean, 13,30 baino lehen jaso ez zenez ezin da onartu URBIETA EGAÑA, S.L. enpresa lizitazioan parte hartzea. Gertatzen da gainera, burofax horretan

lizitzaile enpresak proposamen ekonomikoa sinatuta aurkezten duela eta hau kartazal itxian aurkeztu behar da eta ekintza publikoan ireki,

HTK FILM, S.L. izanik lizitzaile bakarra, 2013-07-16an, A kartazalaren dokumentazioa kalifikatu zen eta egun horretan bertan errekeritu zitzaion, dokumentazioa osatzeko, horretarako epea uztailaren 22rarte eman. Data honetarako ez ditu dokumentu guztiak aurkeztu. Falta da, IFK eguneratuta eta zerga betebeharretan egotearen agiria.

2013-07-17an, B kartazala ireki zen. Kartazala horren edukia aztertu ondoren, 2013-07-22an Kultura eta Euskarako Koordinatzaileak ondorengo txostena eman zuen:

“HTK FILM SL-k Kontratuaren esleipenerako dokumentazio teknikoak aurkeztu dute eta eskaintza hori balioesteko alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- I. Jarduera memoria*
- II. Hobekuntzak*
- III. Digitalizazioa*

I.- Jarduera-memoriari dagokionean:

1.- Zinemagintzako eskaintzaren hedapena eta publizitatea.

*Atal honetan egokiak iruditzen dira aurkeztutako eskaintza eta egindako hedapen proposamena nahiz eta **zine emanaldiei dagokienez, pleguan jasotzen dena mugatzen den**. 76 pelikula emateko konpromisoa hartzen du, helduentzako zein umeentzako eta zine-kluba eta TINKO barne. Programatuko den zinearen %50 euskarazkoa, europarra, iberoamerikarra edota independentea.*

- Euskal zineari arreta, estatu mailako estrenaldiak bertaratuz, helduentzako 2 pelikula asteburuetan, 3 D formatoko zine emanaldiak. Emanaldi hauek urrian hasiko liriteke haurrentzako pelikula batekin.

- Kartelerari dagokionez, zinean eta Udalak egokitutako tokietan. Hilabeteko programazioa eskuorri batean eskainiko dute eta horren buzoiketa egitea, horren publizitatea udalaren web orrian, posta elektronikoz interesatuei eta zineko Twitter eta facebook –en.

- Horretaz gain iradokizunen orria ikusleen iritzia eta gustuak jasotzeko

2.- Antolatzea aurreikusten diren jarduera eta ekitaldiak, proaktibotasuna bultzatzen duen kudeaketa bat gauzatze aldera, zine eta erakusketa-aretoaren erabilera indartuz, kultura maila duin batekin.

*- Udalari, 15-20 eguneko aurrerapenarekin emango zaio hurrengo hilabeteko programazioaren berri. **Pleguan jasotzen dena mugatzen da.***

*- Proposatzen duen abonua sistema **baldintza pleguan jasotzen da.***

*- 3D sistemako emanaldietarako tasa 6.50€koa izatea proposatzen du. **Erabaki hori Udalari dagokio.***

- Zine-kluba sustatzeko beharra adierazten du eta emanaldi horiek ostiraletan izatea eta prezioa jaistea 4,50€tik 4€ra. Ondo baloratzen da sustapena baina orain arte zine-kluba ostegunetan izaten denez, **Goienizekoen oniritzia beharrezkoa izango da.** Tasa jaistea ikusleen onurarako izango denez, ondo baloratuko litzateke.
- Bestalde, enpresarako irabazia utziko duten ekitaldiak antolatzea proposatzen du, hala nola, mendiko jaialdi, pailazo, magia, bilera edo kongresu,...

3.- Usurbe antzokiko eskaintza eskualdera hedatzea.

- Ez du ezer proposatu

4.- Bitarteko pertsonalen organigrama

- Pertsonala subrogatzeko konpromisoa hartzen badu ere, **ez du inolako organigramarik aurkeztu eta ezta langile horien hizkuntza-gaitasunaren inguruko daturik.**

II.- Hobekuntzen atalari dagokionean:

1.- Aretoan inbertsioak egiteko proposamena

Atal honetan egiten dituzten proposamen gehienak egingarriak badira ere, ez dira zehazten.

- Proiektore digitala jartzearekin batera, zineko soinuaren kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen du.
- Proiektore operadoreari formazioa emateko konpromisoa hartzen du
- Zineko soinuari dagokionez, soinu mahaiarekin dagoen arazoari irtenbide bat ematea proposatzen du eta era berean, argi mahaiari irtenbide egokia emango liokete.
- Egoki jotzen dituzten emanaldietan LED motako argiak jarriko lituzkete.
- Denboraldiaren bukaeran, zineko materialak tekniko guztiaren azterketa egingo lukete.
- Blue-ray erreproduzigailua instalatzeko konpromisoa hartzen dute, proiektore digitalari eta zineko bozgorailuen soinuari uztartuta. Horrela, formatu digitalean edo 35mm-tan etortzen ez den pelikula, irudiari nahiz soinuari dagokionean, kalitate handiagoan proiektatzeko modua izango da.

2.- Erabiltzaileen zein herriko eragileen, elkarte sozio-ekonomikoen eta kulturalen onurarako diren ekimenak.

Atal honetan egiten duten proposamena ez dute zehazten.

-Herriko merkataritza elkartearekin harremana izatea proposatzen du, elkarlanean egin beharreko proiektuak proposatzeko, beti ere, beasaindarren onurarako bada.

III.-Digitalizazioari dagokionez:

1.- Esleipendunaren aholkularitza, 3D/2D sistemek eskaintzen duten aukera desberdinen ingurukoa eta horiek gaur egungo zine-produkzioan duten egokitzapena,

berak duen eskarmentuan eta digitalizazioak indarrean jarri zenetik gaur egunerarte izandako bilakaeran oinarrituta, Udalak erabaki dezan zein sistema ezarri.

. Atal honetan ez dute 3D/2D sistemek eskaintzen duten aukera desberdinen aholkularitzarik eskaintzen, pleguan eskatzen zen bezala, aitzitik, pleguan markatzen diren epeetan 3D duen proiektore digitala instalatzeko konpromisoa hartzen dute.
Enpresa hau aitzindaria izan da Gipuzkoan zine digitala instalatzen eta proiektatzen. 2011ko irailean Andoaingo Bastero zinean eta 2012ko irailean Zumarragako Zelai Aristin.

Enpresako pertsonalak proiektore digitalen erabileran eskarmentua eta formakuntza du, Donostiako zinemaldian, Donostia kulturak antolatzen dituen jaialdietan, Kursaal-en, Tolosako Topic eta Leidorren,...

2.- Produktuaren ezaugarri teknikoak, funtzionalak eta kalitatekoak.

- Zinea digitalizatzea proposatzen dute, 3D eskaintzen duena, aforoak eskatzen duen heldu zein umeentzako betaurrekoekin hornitua. Digitalizazio ekipoaren salmentako baldintza orokorren eta aurrekontuaren dokumentazioa atxikitzen dute, Cinetronica enpresarena, ematen du enpresa hori izango dela hornitzailea.
Hala ere, **ez dute inolako azalpenik ematen produktuaren ezaugarriez, pleguan eskatzen den bezala.**

3.- Laguntza teknikoa (sistemaren mantenua, salmenta ondorengo zerbitzua, intzidentzien erantzuna,...)

- Urteroko mantenimendua egiteko konpromisoa hartzen du, lau urtetan zehar, baina **ez du salmenta ondorengo eta intzidentzien erantzunen inguruko zerbitzuari buruzko inolako aipamenik egiten**

4.- Berme epea

- **Ez du inolako proposamenik egiten.**

ONDORIOA:

HTM FILM SL -ren memoria teknikoa aztertu ondoren, oso eskasa dela ikusten da, izan ere, ez ditu pleguetan eskatzen zaizkion xehetasunik aurkezten eta aztertzen, batez ere, digitalizazioaren aholkularitzari eta langileen organigramari dagokionean.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak berak izango duen irizpide hobeagorekin proposatu beharko dio Gobernu Batzordeari dagokiona, hau da, lizitazioa hutsik uztea eta deialdi berri bat egitea edota aurkeztu den espresari esleitzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro (EAJ): "Gure jarrera abstentzioarena izango da. Gure ustetan alde batetik digitalizazioa kontratu behar da eta bestetik, zine eta erakusketa aretoaren ustiapena. Ez dugu oso ondo ulertzen zergatik

proposatzen den deialdia hutsik uztea, nahiz eta lizitatzailleak aurkeztutako proposamena eskasa izan, jakinda praktikan enpresa horrek ondo funtzionatzen duela.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Zine eta erakusketa aretoaren ustiapena eta digitalizazioaren instalakuntza modu bateratuan kontratatuta, enpresen konkurrentziari ateak ixten ari gara. Nire proposamena ere, alde batetik ustiapena eta bestetik digitalizazioa kontratatzea izango litzateke.”

Garbiñe Zurutuza (ARALAR): “Gure proposamena, zinearen ustiapenez arduratzen zenak digitalizazioa ere egitearena zen. Digitalizazioak hasierak inbertsio handia suposatzen duenez, kontratuarentzat lau urteko egikaritze epea proposatzen zen, epe horretan inbertsio hori amortizatu ahal izateko eta aldi berean, zinearen kudeaketa ona bermatu ahal izateko. Dena dela, hasierako inbertsio hori egitea freno bat izan daiteke lizitazioan parte hartu nahi duten enpresentzat eta horren ondorioz ez zaigu gaizki iruditzen Udala izatea digitalizazioaz arduratu behar dena, nahiz eta horretarako beharrezkoa izan, kreditu aldaketa egitea.”

Hori horrela izanik, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2013-06-28ko GAOean argitaratutako Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena eta antzoki horretarako 3D / 2D sistemarekin proiektio digitalerako ekipamenduaren hornidura eta instalazioa kontratatzeko deialdia hutsik uztea, proposamen egokia ez delako baldintza pleguan ezarritako baldintzak bermatzeko.

Bigarren. Bi deialdi berri egitea, alde batetik zinearen digitalizazioaren hornidura eta instalazioa kontratatzeko eta bestetik Usurbe Antzokiaren eta erakusketa gelaren ustiapena kontratatzeko. Horretarako beharrezkoak diren baldintza agiriak prestatu beharko dira.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- OBRAK ESLEITZEA:

- ITTOLAko industrialdeko pabiloien atzeko euste-horma konpontzeko eta luizia egonkortzeko obra-lanak.

Ezagutzera eman da, 2013ko kontratazio mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko ekainaren 17an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Ittolako industrialdeko pabiloien atzeko euste-horma konpontzeko eta luizia egonkortzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 345.058,90 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 14 aste.

2.- Deialdia, 2013ko ekainaren 21ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora hiru enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, enpresa bati dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion. Errekeritutako dokumentazioa aurkeztu zuen eta horren ondorioz denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Uztailaren 24an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

Lizitazio prezioa BEZ gabe **345.058,90 €**.

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA
1	UTE, MIRAMAR GUNITADOS, S.A. – VICONSA Erregistro sarrera zenbakia: 2249	288.260,55
2	CNES MARIEZCURRENA Erregistro sarrera zenbakia: 2250	299.496,91
3	UTE, IPARRAGUIRRE- ITURRIOZ Erregistro sarrera zenbakia: 2240	268.991,69

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

a) *Proposamen ekonomikoa 90 puntu*

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

B ESKAINTZAREN PUNTUAKETA = 90 + 1,25 x ((A eskaintzaren zenbatekoa - B eskaintzaren zenbatekoa) / 1000

b) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- *EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.*
- *Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.*

c) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- *Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.*
- *Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.*

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, jarraian azaltzen den koadroan ikus daiteke zein enpresek aurkezten dituzten euskera sustatzeko nahiz emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiriak.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaiak erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea-

Beraz, lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA PRECIO	EUSKERA BERDINTASUNA	PUNTUAK PUNTOS
1	UTE, MIRAMAR GUNITADOS, S.A. – VICONSA Erregistro sarrera zenbakia: 2249	288.260,55	0+0	60,86
2	CNES MARIEZCURRENA Erregistro sarrera zenbakia: 2250	299.496,91	5+5	53,86
3	UTE, IPARRAGUIRRE- ITURRIOZ Erregistro sarrera zenbakia: 2240	268.991,69	5+0	95,00

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ittolako industrialdeko pabiloien atzeko euste-horma konpontzeko eta luizia egonkortzeko obrak, CNES ITURRIOZ, S.A. eta CNES IPARRAGUIRRE, S.L. denboraldirako elkarte enpresei esleitzea, 268.991,69 €ko prezioan gehi 56.488,25 € (BEZ). Guztira, 325.479,94 €. Egikaritze epea, hamalau astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 13.449,58 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Denboraldirako Elkarte Enpresa eratzeari buruzko eskritura, IFKrekin batera.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- Bizikleta bide sarearen ardatz nagusiari dagozkion lanak, I eta III faseak obra-lanak kontratatzeko.

Puntu hau mahai gainean geratu da, proportzionatuak ez diren eskaintzak aurkeztu direlako eta lizitatzailerari entzutealdia eman behar zaiolako eta bere proposamen ekonomikoa justifikatzeko aukera eman behar zaiolako.

- Murumendi ikastetxean kanpoaldeko arotzeria berritzeko lanak.

Ezagutzera eman da, 2013ko kontratazio mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko ekainaren 17an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Murumendi ikastetxean kanpoaldeko arotzeria berritzeko lanei buruzko proiektuaren obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 81.575,07 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 6 aste.

2.- Deialdia, 2013ko ekainaren 21ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitazioa lau enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, hiru enpresei dokumentazioa osatzeko errekerimendua egin zitzaion. Hiru horietatik bakarrik bi enpresak aurkeztu zuten dokumentazioa eta horren ondorioz bakarrik hiru enpresak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Uztailaren 24an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

Lizitazio prezioa BEZ gabe: **81.575,07 €.**

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA
1	MANUEL ECHAIDE, S.L.	60.809,62

	Erregistro sarrera zenbakia: 2234	
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L. (Fax, 2013-07-17)	55.020,16
3	CONST. ECHAIDE, S.A. Erregistro sarrera zkoa: 2244	67.681,03
4	TEUSA Erregistro sarrera zkoa: 2252	Lizitazioara ez onartua No admitido a licitación

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

d) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

B ESKAINTZAREN PUNTUAKETA = 90 + 1,25 x ((A eskaintzaren zenbatekoa - B eskaintzaren zenbatekoa) / 1000)

e) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkeztu badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- *EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.*
- *Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.*

f) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkeztu ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- *Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.*
- *Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.*

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi da inork ez duela aurkeztu euskera sustatzeko nahiz emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiriarik.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaiak erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea.

Gertatzen dena da, prezio merkeena aurkezten duen, GOITU ERAIKUNTZAK, S.L. enpresaren proposamena besteekiko desproporzionatua dela. Hori dela eta bere eskaintza justifikatzeko eskatu zaio eta gaurko goizeko 7,00etarako deitu zaio, aurkeztutako proposamena azaldu dezan.

Entzutealdian bere eskaintza berretsi egin du. Egindako baja justifikatzeko adierazi du gastu orokorren eta industria onuradunaren portzentaiak gutxitu egin dituela, hain zuzen ere, 19tik 10era pasatuz. Gainera ekintza honetan partiden desglosatuak aurkeztu ditu eta baldintza pleguan ezarritako %80ko azpikontratazioa ez duela gaituko azaldu du. Partida ezberdinen azpikontratazioa ondo kudeatzearen ondorioz, lizitazio prezioa aurkeztutako kopuruetan hobetzeko aukera izan dute.

Beraz, lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

Lizitazio prezioa BEZ gabe: **81.575,07 €**.

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA	EUSKERA BERDINTASUNA	PUNTUAK
1	MANUEL ECHAIDE, S.L. Erregistro sarrera zenbakia: 2234	60.809,62	0+0	81,24
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L. (Fax, 2013-07-17)	55.020,16	5+0	90,00
3	CONST. ECHAIDE, S.A. Erregistro sarrera zkia: 2244	67.681,03	0+0	70,85
4	TEUSA Erregistro sarrera zkia: 2252	Lizitazioara ez onartua No admitido a licitación		

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Murumendi ikastetxean kanpoaldeko arotzeria berritzeko lanei buruzko proiektuaren obrak, GOITU ERAIKUNTZAK, S.L.ri esleitzea, 55.020,16 €ko prezioan gehi 11.554,23 € (BEZ). Guztira, 66.574,39 €. Egikaritze epea, sei astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzari eguneratuta egotearen agiriak.
- 2.751,00 €ko behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- Esteban Lasa kalea, Zazpiturrieta eta Lorategi kaleen arteko zatia, urbanizatzeko lanak.

Puntu hau ere mahai gainean geratu da, proportzionatuak ez diren eskaintzak aurkeztu direlako eta lizitatzaileri entzutealdia eman behar zaiolako eta bere proposamen ekonomikoa justifikatzeko aukera eman behar zaiolako.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.